

Goi

Goierritarra aldizkaria

404 zenbakia 2011ko uztailak 1

GLASARDA 1937
GOIERRI 2011
ZINZA
MONTANA
DIEGO
ARGIAGO
TA
ZERO
AUTO

LARRAITZ
UZTAILAK 2

SEGURAKO MUSEO TXIKIA



ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Ε Μ Ψ Ε

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo EXTREME ROMEO GIGI

faktore



Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitisa, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



Goierritarra baino gehiago

ale
zaharrak
PDF-n



goierritarra.hitza.info

iritzi
artikuluak

Goierriko
agenda
eguneratua

eduki
gehigarriak

azken aldizkariko
eduki osoa

aurrerapenak



Aitor Sarriegi

Aupa Iñaki!

Bizi al haiz, ala joan den asteko bero-sapak eliminatu hau mapatik? Uda bazetorrela,

baina hain kolpean etortzea ere... Tira, opor-usaina hasi duk behintzat gurean. Garai batean abuztua izaten huen langilerik gehienek opor-garaia. Gaur egun zabaldu egin dek opor posibleen tarteak, eta gero eta normalagoa dek ekainean, uztailan, irailean... oporrak hartzea. Hala ere, ez zekiat benetan oporrak hartzearen zentzua gordetzen den. Neretzat oporrak egoera bat dituduk, lanera joan beharrik gabe egotea alegia. Gutxi galdetuko dik ordea: "Zer egin behar duzu aurten oporretan?" edo "Oporretan al zaude?" besterik gabe.

"Eta zuk, nora joan behar duzu oporretara?" edo "Oporretan izan da" errezago entzungo dek. Oporra nahi-

Ez zekiat oporrak hartzearen zentzua gordetzen den. Neretzat oporrak egoera bat

dituduk, lanera joan beharrik gabe egotea.

taz toki ezberdin batera joatearen ideia gero eta barnertuagoa zegoen. Eta toki hori zenbat eta urrunagoa, aisialdirako programatuagoa, batzutan exotikoagoa... izan, orduan eta oporrako oporrak. Edozein zubi xaxtarretan zer egin behar dugun galdetu ordez nora goazen erantzun behar izatea bezala. "Ba... Naparrora edo..." "A, orduan ez zoaz inora..."

Ez zioat inori esango bere oporrekin zer egin behar duen, besterik behar genian. Lanetik libre dugun gure denboran zer/nola egin zenbateraino erabakitzen dugun etorri zaidak galdera, ez dek besterik. Egin dezala bakoitzak nahi duena, dela etxean geratuta zein ilargira eguzkia hartzea joanda.

Eta hik? Hik zer egin behar dek oporretan?



Iñaki Apalategi

lepa Aitor

Ez zekiat ba zer egin oporretan. Izan ere, Lanak jaten zidak egunaren zati handiena, eta ez zeukaat denborarik oporretan pentsatzeko ere. Lanetik atera, spinningeko klaseetara joan sasoian egoteko, eta hura ez denean pilates egitera, sasoia eta gorputz giharreak orekatzeko. Denboraz larri bizi nauk, kotxea garbitzeko juxtu-juxtu ateratzen diat tarte bat igande eguerditan, bezperako biharamuna pasatzen ari zaidanean; hortik kontuak atera. Terapeutak esaten zidak bizitza lasaia hartzeko, baina, nola egingo diat ba hori, hain okupatuta egonda?

Oporretara joateko eguzkia ziurra den tokiren batetara joango nauk, hoteletik hondartzara edo horrelako zerbait.

Imajinatzen al duk, Ataunen kobak, edo

Zerainen industrializazioaren atzarnak

topatzea? Hemen ez zagok merezi duen ezer.

Edo bestela Alpeetan egiten diren guided tour bat egingo diat, edo trekkingen bat Himalayan. Dirua duk, baina ezertaz ez duk arduratu behar: bidaia, hotela, jana, garraioak, hizkuntza... guztia lotuta zagok, horrela bai! Gainera, Himalayak ederra izan behar dik, haien kultura, hizkuntza, mitologia, dantzak, ohiturak... dituen tokia, mendetan zehar iraun duena. Hau ez bestelako lekuak, badakik. Zergatik ote duk hau hain berdina? Imajinatzen al duk, Ataunen kobak, edo Zerainen industrializazioaren atzarnak topatzea? Hemen ez duk ezer interesgarrikerik gertatzen, eta ez zagok merezi duen ezer.

Beno, barkatuko didak, baina utzi egin behar haut, flotariumera joateko ordua hartuta diat, eta ez nauk iritsiko eta. Ondo pasa oporretan, egongo gaituk bueltan!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Publizitatea: 647 319 775

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albusu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Sinetsi dezatela Goierri eskualde bat
dela; esan askotan esaten dugu,
baina aintzat hartu, gutxitan.



Xabier Mendiguren Elizegi

Aholku sinple batzuk agintari berrientzat

Goierriko herri bateko alkate berrietako batekin suertatu ginen, lagunartean, izendapena baino lehentxeago. Norbaitek galdetu zidan ez ote zitzaidan gustatuko neure herriko kultur zinegotzi izatea edo. Halako marmar, gaitzespen edo mespretxuzko keinu bat egin nuen, nonbait, eta ez dakit alkate horrek gaizki hartu ote zuen. Nolanahi dela, nire animoak udaletxeetan gauzak aurrera ateratzeko ardura hartu duten guztiei, ez baita eginkizun samurra ez esker onekoa, eta, politika lokala gutxiesten dudan inpresiorik ez sortzeko, horra aholku batzuk, inork kasurik egin nahiko balu.

Agintari berri nahiz zaharrek mila buruhauste izango dituzte (langabezia, krisian dauden enpresak, etxebizitza, behar gorrian bizi direnak, gehi normalizazio politikoa lortzea eta horrekin loturiko guztia), eta, beraz, sujerentzia txiki batzuk egingo dizkiet, kulturaren arlotik mugitu gabe.

Hasteko, sinetsi dezatela Goierri eskualde bat dela; esan askotan esaten dugu, baina aintzat hartu, gutxitan. Zabor bilketa eta turismoaren propaganda modu bateratuan egiten diren bezala, ez litzateke txarra kulturaren programazioa, ez zentralizatu, baina bai behintzat koordinatu egitea, eta baita horren promozioa ere, elkarri konpetentzia egiten ibili gabe. Adibide txiki bat hartuta: Beasain, Ordizia, Lazkao eta Ataungo zinemetan, behin baino gehiagotan gertatu da lautik hirutan film bera ematea asteburu berean; agintariei koordinazioa eskatzen diegun bezala, herritarrok ere geure buruari esijitu behar genioke bailara-zentzu gehiagoz jokatzeko geure aisialdia eta kultur kontsumo antolatzean, geure herri-zokoan ez bada errazago jotzen baitugu Donostiara aldameneko herrira baino.

Bigarren: hizkuntza dela-eta, urrezko letraz idatzi esaldi hau, eta gogoratu goizero: "Ez egin gauzak euskararen alde, egin gauzak euskaraz". Hau da, euskararen "sustapenerako" futbolarien mahai-inguru bat antolatzeak gure anormaltasuna agerian jarri eta sermoi kutsua ematen dio jardura horri. Ez al da naturalago kirol arlotik antolatzea ekintza bera, baina hori bai: euskaraz eginda? Gauza bera sukaldaritza, edo argazkilaritza, edo yogan. Horretarako, udaletxetik bakarrik aritu ordez, herriko talde eta elkarteak ere inplikatzeko onena: hau da, herriko mendizale elkarteak diapositiba emanaldiak prestatzen badi-tu urtean zehar, haiekin adostu zenbat izango diren euskaraz: eskualdeko herri euskaldunenetan, guztiak edo gehienak; Beasain bezalakoetan, hainbesteko bat.

Amaitzeko, kultur azpiegiturak inportanteak dira: alde handia dago, herri batek kultur etxerik izan edo ez izan; baina azpiegitura inportanteena jendea bera da. Taldeak zaindu egin behar dira, jendeari entzun, sortzaileei aukerak eman. Hori baita gure benetako aberastasuna, galduz gero berreskuratzen gehien kostatzen den altxorra.

Eta azken aholku bat: etxe gehiegi eraiki eta gehiegi eraitsi dira azken urteetan, gure herrien berezko taxua desitxuratzeraino; ez dakit eraikitzen segitu behar den edo ez, baina, antzina-ko eraikinei dagokienez, mimatu dezagun gelditzen zaiguna; ondarearen diskurtsoarekin ahoa bete ordez, erabaki praktiko bat: ez bota baserririk ahal dela, eta konpondu zaharberritze premian dauden etxeak, horiek guztiak gure historiaren lekuko baitira, seme-alabei harro erakutsiko dizkiegunak.




kutxa

Merkurio: eguzkitik gertuen dagoen planeta

Antzinatik kultura guztietan izarrek behatu dira. Ikertzaile askok eta askok lan ugari egin dute horiek ikertzen. Zertarako? Zerk motibatzen gaitu hainbeste ordu eta diru horretan inbertitzera? Nire ustez, betiko galderei erantzun zientifiko baten bila gabiltza. Nola sortu zen unibertsoa? Big Bangen aurretik zer zegoen? Zerez osatuta gaude, hau da, atomo unibertsoaren barruan zer dago? Legeren bat al dago Unibertso handia eta unibertso txikia erlazionatzen ditue-na?

Dakizuenez gure eguzki sisteman zortzi planeta daude: Merkurio, Artizarra, Lurra, Martitz, Jupiter, Saturno, Urano, eta Neptuno. (Pluton txikia denez asteroideztat hartu izan da). Oraingoan Merkurio Planetaz idatzi behar dugu, oso planeta bitxia baita. Eguzkitik gertuen dagoen planeta da. Erromatar mitologoei Merkurio Jainkoaren omenez jarri zioten bere izena. Pythagoras ohartu zen, bi momentu berezietan ikusi zitekeela planeta misterioitsu hau, goizez, eguzkia atera baino lehen edo arratsaldeko azken orduan, eguzkia sartzen denean, eta ezkutaketan jolasten ari dela dirudi. Garai horretan begiz egiten zituzten ikerketak. Teleskopioa asmatu zenean, Merkurio eta unibertsoa ikeritzeko tresna izugarria bihurtu zen. Gaur egun zundak bidaltzen dira planeta bertara joateko eta datu bereziak jasotzeko. Honela, planeten ezagueriak ezagutu ditzakegu.

Merkurioren kasuan, begiz ikustea zaila da eguz-



Merkurio begiz ikustea zaila da eguzkiaren gertutasunarengatik eta zundak bidaltzea ere ez da batere erraza.

kiaren gertutasunarengatik (eguzkiak bere argiarekin itzal egiten dio). Baina zundak bidaltzea ere ez da batere erraza. Alde batetik, ia atmosfera gabeko planeta denez, oso tenperatura desberdinak dituelako. Egunez 450°C hartzen du eta gauez -180°C. Zundaren materialak oso material berezia izan behar du tenperatura hauek jasateko. Bestetik, eguzkiak erakapen indar izugarria egiten du eta zundak indar handia behar du frenatzeko eta Merkurioren orbitan sartzeko. 1974an, Mariner zunda bidali zuten eta datu interesgarriak lortu zituen: Merkurioren orbita heliptikoa dela jakitea lortu zuten, eguzkiarekiko punturik gertuena (perihelioa), 47 milioi Km-takoa dela eta eguzkiarekiko punturik urrunena (afelioa), 80 milioi Km-takoa dela. Gainazala, ilargiaren antzekoa da, hau da, krateretaz betea dago, asteroide

eta kometa askoren talkagatik. Orain dela 4.000 milioi urte sortutako planeta dela uste da. Bere barne egitura ere bitxia da. Ilargiaren dentsitatea baino %60 handiagoa da. Bere nukleoaren %42a burnizkoa du, Lurrarena, berriz, %17koa da. Honek egiten du bere dentsitatea hain handia izatea. Datu hauek eta beste zenbait ikertu dira, baina oraindik ez dakigu beste zenbait bitxikeria. Horregatik, 2004an bidali zuten Messenger zunda, honek zazpi urte behar izan ditu Merkurioren orbitan sartzeko, eta orain itxaroten ari gara ekarriko dizkigun datu berriak eta interesgarriak hausnartzeko.

Bukatzeko, esan beharra dago Eguzki sisteman behintzat, gurea bezalako espeziearentzat oso zaila dela beste planeta batean bizitzea. Horregatik, gure planeta urdina zaindu behar dugu baliabide mugatuak baititugu. Bizitza apalagoa eta lasaiegia behar dugu. Natura errespetatu behar dugu, Lurra planetaren oreka hautsi ez dadin.

Maribel Zufiaur

JAKIN BEHARREKOAK

Udako ekintzak Donostiako Zientzia Museoa: udako zientzia txokoa, udalekuak, planetariumeko programa berria famili osoarentzat. Informazio gehiago: eurekamuseoa.es.

Astronomiako efemerideak. Uztailak 1: Eguzki eklipse partziala, Ozeano Antartikoan. **Uztailak 7:** Ilargia perigeoan. **Uztailak 28:** Izar euria, Pizsis kostelazio inguruan ikusiko dira meteoritoak. **Uztailak 30:** Izar euria, Akuario kostelazio inguruan ikusiko dira meteoritoak. **Abuztuak 13:** Perseiadak izar euri famatuak, 400 meteorito orduko espero da. **Abuztuak 15:** Merkurio eta Artizarren konjugazioa.

Pirinioetako hartzen populazioen buruzko datu berriak kaleratu ditu Frantziako Ehizaren eta Basa-faunaren Bulegoak. Hiru azpipopulazioetan daude banatuta. Mendealdeko azpitaldeak Euskal Herrian sartu-irtenak egiten ditu. Bestalde, txosten honetako datuekin Pirinioetako hartzen zuhaitz genealogikoa ere osatu dute.

LIBURUA

'La historia de las cosas' Annie Leonard. Nondik datoz erosten ditugun gauzak? Nora doaz bota ondoren? Horrelako galderei erantzuten zaie liburuan.

landarlan
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteen bat bidali nahi baduzu:
943161244 landarlan@yahoo.es

Merkurio ia atmosfera gabeko planeta denez,

oso tenperatura desberdinak ditu. Egunez

450°C hartzen du eta gauez 180°C.

Oseake, etorri zitzaizuen en plan...

Maizpide euskaltegia

Hizketan ari garelarik, batez ere norbaitekin elkarriketaren bat dugunean, badira hitz “berezi” batzuk maiz antzean esaten ditugunak eta ia “edozerarako” balio dutenak. Hizkuntza guztietan izaten dira eta izan ezean, sortu egiten dira (etengabe, gainera!). Izenburua irakurri baduzue, jakingo duzue, honezkero, zein hitzez ari garen, ezta?

Kontua da badirela hiztunak, ama hizkuntzakoak erabiltzeko ohiturarik ez dutelako edo, erdarara jotzen dutenak. Beharbada, hizkuntza “biziagoa” (“guay”agoa?) erabili

nahian jokatu dute horrela, baina ez dira konturatzen kalte besterik ez diotela egiten horrenbeste maite duten hizkuntzari.

Euskara, zoritxarrez, ez da salbuespena eta gaztelaniatik hartutakoak ez ditu gutxi (gaurko izenburuari erreparatu besterik ez duzue). Kontua da, beti ere ahalegintxo eginez gero, horiek ere modu txukunagoan esatea badaukagula. Ikusi, bestela, gaurko bereziki asmatu dugun Benito artistaren eta entzuleen arteko elkarriketa xelebrea...

EUSKARA “MAKARRONIKOA”

ABER, lagunok!
 BENGÁ, denok barrura!
 BUENO, badakizue nor naizen, NO?
 KLARO, ez badakizue, PUES esan egin beharko!
 OSEAKE... ni ikustera etorri zarete?
 HOLA, Xilberio, zer moduz hago?
 AIBA, Manolo, hi ere hor al haiz?
 JODER, hi! LAHOSTIA izan duk gaur goizekoa!
 Bai, motel, ABER zer esaten duten gaueko PARTEan!
 HOMBRE, gauza handirik ez ditek esango!
 ENFIN, zer egingo zioagu...
 Hi, hasi hadi YA, KOJON!
 BALE, hasi egingo nauk, SINMAS!
 Hi, mutiko, mikrofonoa ekarri! ESKE eztarria...
 JODER, Benito, hasi hadi behingoz! Bestela, FUERA!
 Bai, HOMBRE, ESKE ez gaituk hona KIETO egotera etorri!
 DEAKUERDO, oraintxe hasiko nauk!
 Ikusiko duk, DEPUTAMADREKO AMBIENTEA jarriko diat!
 VAYA, VAYA! SI hemen dago Haritz KON LOS KOLEGIS...
 PUES, KLARO, zu bezala! NOTEJODE!
 Eta zure neska non LETXES dago?
 Etxean geratu da ikasten, PORKE bihar etsamina dauka
 OSEAKE... gaur lagunekin DE MARTXA!
 BUENO, bestela ere DA UN POKO berezi, e!
 HOMBRE, KIENMAS KIENMENOS, ia neska guztiak!
 TIO, NO TE PASES, denak ez! Batzuk joaten dira, bai, EN PLAN...*
 BUENO, eta zer moduz bestela?
 Ondo! Eta zu ere DEPUTAMADRE ikusten zaitut, CABRONAZO!
 JODER, Eneko, barrako mutila ez al da Johnny “Tximas”?
 Da tipo bat SUPERJATORRA, tio! Australiano!
 KOJON, PUES berarekin hitz egitera noa!
 BENGÁ, egongo gara! ADIOS!

EUSKARA TXUKUNA

EUP, lagunok!
 EA, denok barrura!
 TIRA, badakizue nor naizen, EZTA?
 JAKINA, ez badakizue, BADA (BA) esan egin beharko!
 ORDUAN (BERAZ)... ni ikustera etorri zarete?
 AUPA (EUP, KAIXO), Xilberio, zer moduz hago?
 ENE (DEDIO), Manolo, hi ere hor al haiz?
 DEDIO, hi! MARKAKOA (IZUGARRIA) izan duk goizekoa!
 Bai, motel, EA zer esaten duten gaueko albistegian!
 TIRA, gauza handirik ez ditek esango!
 TIRA, zer egingo zioagu...
 Hi, hasi hadi BEHINGOZ, DEDIO!
 TIRA, hasi egingo nauk, BESTERIK GABE!
 Hi, mutiko, mikrofonoa ekarri! IZAN ERE, eztarria...
 Hi, Benito, hasi hadi behingoz! Bestela, KANPORA!
 Bai, GIZONA, ez gaituk hona GELDI egotera etorri!
 EDERKI (ONDO), oraintxe hasiko nauk!
 Ikusiko duk, PRIMERAKO (KRISTOREN) GIROA jarriko diat!
 KONTXO, KONTXO! Hemen DA ETA gure Haritz LAGUNARTEAN...
 BADA, NOSKI, zu bezala! HAU LARRUTARIA!
 Eta zure neska laguna non KRISTO da?
 Etxean geratu da ikasten, bihar azterketa izango DU ETA!
 BERAZ (ORDUAN), gaur lagunekin JO TA KE parrandan!
 TIRA, bestela ere berezi samarra da, e!
 HI, GEHIAGO EDO GUTXIAGO, ia neska guztiak!
 JESUS, GIZONA, denak ez!
 TIRA, eta zer moduz bestela?
 Ondo! Eta zu ere PRIMERAN ikusten zaitut, ALU HORI!
 DEDIO, Eneko, barrako mutila ez al da Johnny “Tximas”?
 OSO mutil JATORRA (EZIN JATORRAGOA) da /duk! Australiarra!
 KONTXO, BADA berarekin hitz egitera noa!
 TIRA, egongo gara! AIO! HURRENA ARTE!

* “Joan ginen en plan...”, “etorri zitzaigun en plan...”. Jakingo bagenu “en plan” horrek zehatz-mehatz zer adierazten duen...



Jon Aranburu



“Aldizkarietan prentsa arrosakoak edo kotileokoak saltzen dira gehien”

Bonolotoaren bigarren saria, 78.118 euroko saria banatu berria du Jon Aranburu beasaindarrak. Loteriaz gain, egunkariak eta aldizkariak ere saltzen ditu. Jendearen joerak zeintzuk izan diren jakin nahi izan dugu...

Loteriaren baten saria ematen denean, saltzaileari zerbait egokitzen al zaio?

Ez. Normalean eskerrak eman eta kitto.

Krisi denboran jendeak gehiago jotatzen al du?

Antzeko. Jendeak horrela uste du baina ez da horrela.

Zein jokutan jotatzen du gehien jendeak?

Primitiva eta Euromillon.

Zein egunetan saltzen da egunkaririk gehien?

Igandetan. Dena den, asko jaitxi da. Ez dakit krisiagatik den, konpetentziagatik den... Ia erdira jaitxi da.

Internetak gaurkotasuna kendu al dio egunkariari?

Jendeari entzuten diot bai, egunkariak interneten irakurtzen dituela.

Zein motatako aldizkariak saltzen dira gehien?

Kotileokoak. Gehiena saltzen dena Pronto da.

Egunean zenbat egunkari irakurtzen dituzu?

Lanean, bistadizo bat denei ematen diet baina etxean, egunkari bat edo bi irakurtzen ditut, denboraren arabera.

Zein titular irakurtzea gustatuko litzaizuke?

Euskal Herriko gatazka konpondu dela.

Zaletasun bat:

Mendirra joatea.

Mendi bat:

Aizkorri.

Janari edo plater bat:

Xerra edo txuleta on bat patatekin.

Edari bat:

Garagardoa.

Mozorro bat:


Urtero ezberdina aukeratzen dugu Beasaingo festetarako. Hurrengo urtekoa ere pentsatuta daukagu.

Festarik gustokoenak?

Beasaingo festak eta sanferminak.

Sanferminak egunez ala gauez?

Orain egunez joaten naiz, lanagatik; lehen gauez.



**‘Autodeterminazioa,
gero eta argiago’
aldarrikapen festa
Larraitzen, uztailaren 2an**

Uztailaren 2an, Larraitzen, bi mila lagun elkartu nahi ditu Nazioen Munduak ekimenak, autodeterminazioaren aldeko jaian. Egun osoko egitaraua antolatu dute, tartean, autodeterminazio eskubidearen aldeko lau mosaiko erraldoi egingo dituzte. Duela 80 urte Itsasondoko Udalak eta 80 urte beranduago Goierriko 18 udalek egin duten bezala, Nazioen Munduko herri ekimenak goierritarrei bota diete autodeterminazio eskubidearekin bat egiteko erronka. Nazioen Munduko Ander Arresek eta Angel Oiarbidek eman dizkigute ekimenaren eta egunaren xehetasunak.

Bi mila lagun elkartzeko erronka bota duzue.

Ander Arrese: Nik uste dut Goierri badaukala erantzun hori emateko gaitasuna.

Angel Oiarbide: Iaz 700 lagun joan ziren Larraitza eta iaz ez genuen ezer ere eskaintzeko. Iaz 2 aste lehenago Igartzako argazkia atera zen eta kartel horrekin 700 sinadura bildu ziren Larraitzen. Urtebete lehenago Igartzako argazkia, Miramarko argazkia, Urriaren 16ko jaialdia, Goierriko 18 herritan udal mozioak onartu dira... orain zer eskaini handiagoa daukagu. Zerbait herrizailgoa eta partehartzaileagoa izango da gainera aurtengoa.

Arrese: Harrotzekoa izango litzateke Goierri apustu hau irabaziko balu.

'Itsasondo 1931. Goierri 2011. Autodeterminazioa gero eta argiago' jarri diozue aurtengo kanpainari leloa.

Leloaren hasieratik hasita,

Itsasondoko Udalak

1931n, autodeterminazio eskubidearen akta sinatu zuen. 80 urte beranduago, 2011ko apirilaren 18an, Goierriko 18 udalek egin zuten bat

aldarrikapenarekin.

Oiarbide: Apirilaren 18an hasi zen kanpaina. 80 urte bete ziren, Itsasondoko Udalak, autodeterminazioaren aldeko akta bat sinatu zuela. Euskal Herrian autodeterminazio kontzeptua lehe-

nengo aldziz orduan agertu zen. Europan, XIX. mende bukaeran hasi ziren estatutik gabeko nazioak kontzeptu hori erabiltzen.

Mikel Aramendiren bitartez ezagutu genuen Itsasondoko akta. 80 urte geroago ikusten dugu, mugari historiko bat izan zela Itsasondoko egin zutena. Guk 80 urteren ondoren, Goierriko 18 udalek, Igartzako manifestuaren onarpenera egin dute. Orain herritarroei dagokigu geurea egitea.

'Autodeterminazioa gero eta argiago' da leloaren bigarren zatia. Zer dago gero eta argiago?

Oiarbide: Batetik, testua bera. Lehen, eskuz idatzitako paper bat zen, gazteleraz idatzia. Orain euskaratuta dago eta ordenadorez idatzita. Testua bera geroz eta argiago ikusten da.

Bestetik, autodeterminazio kontzeptua bera, daukagun eskubide hori, 80 urte baino argiago ikusten dugu. Apirilaren 18an erakundeek eman zioten babesa eta orain, uztailaren 2an, herritarren txanda da. Hau ondo irititzen bazaigu, ikusten dugu proiektio handia izango duela, bai Euskal Herri mailan eta Euskal Herri kanpo. Hau ondo ateratzen bada, Euskal Herrian eta Euskal Herri kanpora zabaltu beharreko mezua izango litzateke. Goierritarrok ere harro egon gaitezkeen ekin-tza bat izan daiteke.

Arrese: Besteek ere, gu egiten ari garen saiakera ikustea nahi dugu eta beste eremu batzuetara zabaltzen joatea. Ikus dezatela Goierri zer egiten ari garen. Adibide bezala norbere burua jartzea ez da oso egokia, baina nahi genuke ariketa hau beste leku batzuetan ere egitea.

Nazioen Mundua 2007tik ari da autodeterminazio eskubidea gizarteratzen. Gizartea kontzeptu hori barneratzen ari al da? Aldaketarik nabaritu al duzue?

Arrese: Nik uste dut baietz. Jende askok ezagutzen du ekimena. Garbi dago oraindik ez garelako guztietara iristen, baina nik uste dut pauso batzuk eman direla. Irekitze batzuk eman dira, batez ere maila pertsonalean. Pentsakera oso ezberdinetako jendearen artean hurbiltze batzuk eman dira, hartueman naturalagoak sortu dira kontzeptu honen inguruan. Egia da ez garelako iritsi nahi genuen tokira iritsi. Oraindik gelditzen zaigu lana. Denetara iritsi nahi dugu, denek uler dezatela zein den gure aldarria eta gure nahia. Nik uste dut denok daukagula lekua aldarrikapen honetan.

Oiarbide: 2007. urtean hasi zen Nazioen Mundua erabartzeko eskubidearen aldarrikapenarekin eta ikusten da Goierri mailan, Anderrek esan duen bezala, harremanak sortu direla, herritarren artean, gune bat sortu dela jende ezberdinen artean. Ustez oso ezberdinak ginen artean, pausoak eman eta lana egin dezakegu. Hori izugarritzko erronka da. Urte gutxitan egin diren apustuak, pozik egoteko moduko apustuak izan dira. Jendeak eman duen erantzuna, atera diren argazki ilusionante horiek, Igartzakoa edo Miramarkoa, orain urte batzuk seguraski ezinezkotzat izango genituzkeenak dira. Hori baino garrantzitsuagoa

da, herritarrek behartutakoak izan direla, herritarrek izan direla zuzendariak. Horrek pisu handia ematen dio, ikusten baita herritarrek bat egin ez gero, posible dela, alderdi politikoak bideratzea.

Arrese: Hasiera batean harri-garria zen batuketa puntu hori, orain ilusionantea da. Larraizko bilkura honetan hori adierazi nahi dugu. Hasiera batean zaila ikusten zen, harrituta bezala begiratzeko zen. Ordiziakoaren ondotik, ilusioz ematen dira

“Autodeterminazio kontzeptua bera, daukagun eskubide hori, orain 80 urte baino argiago ikusten dugu. Apirilaren 18an erakundeek eman zioten babesa eta orain, uztailaren 2an, herritarren txanda da”



Apirilaren 18an, Goierriko 18 udalek bat egin zuten 1931n Itsasondo Udalak sinatutako autodeterminazioaren aldeko aktarekin.

pausoak. Ikusten da, posible dela. Ilusiora pasatu gara eta ilusio hori elikatu egin behar da.

Zuek ere, Eskozian eta Katalunian, autodeterminazio eskubidea nola garatzen ari diren ikusten eta ikasten aritu zarete. Zer ikasi duzue?

Oiarbide: Ikaragarri ondo etorri zaigu, batez ere, Eskoziako bidaia, autodeterminazio kontzeptua bera argiago ikusteko eran. Hemen geneukan kontzeptua zen, abertzaleen aldarrikapen bat bezala ikusten zela. Eskoziara joan, demokraziaren norabidean urte gehiago daraman gizarte batera joan eta ikusi dugu, han ez dela abertzaleen aldarrikapen bat, baizik eta demokraten aldarrikapena dela. Gauza oinarritzakoagoa da. Autodeterminazio kontzeptu hori hemen berri samarra da baina iruditzen zaigu etorkizuna hori dela.

Hasiera-hasieratik esan izan dugu, Larraitza izan dadila topagunea. Bat Abaltzisketara badoa eta bestea Larraitza, ez gara gai bi pauso elkarrekin emateko, nahiz eta bide gehiena elkarrekin egiteko gai izan. Joan gaitezen elkarrekin azkeneko bidegurutzeraino eta sortu dezagun topagune bat. Gero bakoitzak erabakiko du batera joan edo bestera joan. Ez zitzaigun iruditzen topagune hori aldarrikapen politikoa zenik, aldarrikapen demokratikoa gehiago da. Norabide politiko ezberdinak hortik aurrera aterako lirateke. Hori da Eskozian gertatzen dena.

Eskozian, parlamentario unionista bati galdetu genion zer gertatuko litzatekeen, Gordon Brown aurreko lehenengo ministroak eskoziarrei ez balie utziko beraien etorkizuna erabakitzen? Erantzuna izan zen: "guk hori ez genuke

onartuko. Eskoziarrok erabakitzeke eskubidea daukagu eta horregatik guk ezezkoaren alde lan egingo genuke, Eskoziarentzat askoz ere hobea delako Erresuma Batuan egoitea, independentea izatea baino". Haiek ez dute dudatan jartzen oinarritzko eskubide hori.

Kontzeptu hori berria da hemen eta gure asmoa da, zaharkiturik ditugun eskemak puskatzen joatea. Eta txikiena den eremu hori, ahalik eta zabalena egitea, ahalik eta espektro guztietara zabaltzea eta eskema horietan jokatzeko. Bide handia daukagu baina iruditzen zaigu egin dena oso garrantzitsua izan dela. Eta garrantzitsua baino gehiago, beharrezkoa izan dela.

Katalunian ere izan zarete, erreferendum bat ikusten.

Oiarbide: Eskoziakoak askotarako balio izan digu eta Kataluniakoak ere bai. Gauzak zeinen diferente diren! Eskozian gobernuak esaten du erreferenduma egin behar duela eta Erresuma Batutik edo Londonetik ez da inongo eragozpenik jartzen. Katalunian aldiz, Eskozian ez bezala, binkulantea ez den kontsulta bat egiteko ere, Estatu guzti bat joan zitzaion gainera.

Konstituzionala, falangea... Ikusi besterik ez dago bi gizarteren ezberdintasunak. Begira zenbat falta zaigun, bai espainiarrei eta bai guri, kontzeptu horretan jartzeko. Arenys de Munten hasi ziren eta Kataluniako herri guztietara iritsi dira, baita Bartzelonaraino ere. Nahiz eta Eskoziako eredu edo Kataluniako ereduaren txertatzeko modukoak ez izan, ikasteko esperientziak dira. Euskal Herrian ere gure saiakerak egin egin behar ditugu egunen batean, seguraski gure adibide edo eredu propioa sortuz.

“Hemen geneukan kontzeptua zen, abertzaleen aldarrikapen bat bezala ikusten zela. Eskoziara joan, demokraziaren norabidean urte gehiago daraman gizarte batera joan eta ikusi dugu, han ez dela abertzaleen aldarrikapen bat, baizik eta demokraten aldarrikapena dela”.



Egun osoko festa

Festa eta aldarrikapena izango dira ardatz, uztailaren 2an Larraitzen egingo den ekimenen. Besteak beste, bertsoak, kantuak, pintxoak, musika eta bazkaria izango dira. Goizeko festa Larraizko aparkalekuan izango da. Eguerdian, txarangaren doinua lagun, Abaltzisketaraino joango dira, bertan izango baita bazkaria eta festa. Bazkariko txartelak 16 eurotan daude salgai, Goierriko hainbat tabernetan.

Dena den, eguna hasteko, goizeko 10,30etan, mosaiko erraldoia egiteko deia egin du Nazioen Mundua herri ekimenak. Lau irudi osatuko ditu bertaraten den jendeak, argazkietan ikus daitezkeenak.

Angel Oiarbidek azaldu digu zein bide erabiliko duten mosaikoari argazkia ateratzeko. "Alturan, kamara finko bat jarriko dugu. Marronekin saiatu ginen paramotorrarekin baina paramotorra ez da geldi egoten. Altuera batean, jasotzaile batekin, kamara geldi egongo da. Sekuentziak hauek izango dira: Txindoki azpian, zelai bat, zelai horretara herritarak datoz eta aurrez markatuta egongo diren lekutan kokatuko dira. Jendea kokatuta dagoenean, kartulinak altxatuko ditugu. Irudi ezberdinak egingo dira. Euskal Herria, hautestontzira papeleta sartzen, hautestontzian papeleta sartuta eta hautestontzian Euskal Herria". Mosaikoan parte hartu nahi duenak izena ematea komenigarria da antolatzaileek diotenez. (nazioenmundua@nazioenmundua.net - 652775923-649311757).

Bideoa Euskal Herri mailan eta nazioarte mailan zabaltzeko nahi dute antolatzaileek. "Zabalkunderik handiena egiten saiatuko gara. Dokumental bat ere ari gara egiten. Irudi batzuk erabiliko lirateke", zehaztu dute. Jon Maia bertsolaria ari da Nazioen Munduaren inguruko dokumentala egiten. Abenduan estreinatzeko asmoa daukate.

xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net
nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**



“Autodeterminazioa egituratzeko, bi elementu fisiko dira hauteskontzia eta papeleta. Hori izan liteke hurrengo pausoetariko edo erronketariko bat”.

Ander Arrese eta Angel Oiarbide.

Elementu berriak sartuko dituzue uztailearen 2an mosaikoetan, hauteskontzia eta kartazala.

Oiarbide: Hauteskontzia eta kartazala elementuak gizarteratzeko sartu nahi ditugun bi elementu berri dira. Gizarteratzen eta sozializatzen ari garen kontzeptua daukagun erabakitze eskubidea da. Baina azkenean, hori egituratzeko, bi elementu fisiko dira hauteskontzia eta papeleta. Hori izan liteke hurrengo pausoetariko edo erronketariko bat. Erronka horren elementu fisikoak geroz eta argiago ikusten hasiko gara.

Arrese: Naturalago ere bai. Aukera erreal bat bezala ikusi behar da eta ez aukera agresibo bat bezala. Naturaltasunez onartu beharreko aukeraketa bat da. Azken batean desmitifikatu eta agresibitatea kendu diezaiekegu kontzeptu horiei.

Hauteskontzia eta papeleta mahai gainean jarri dituzue... Datarik ba al darabilkizue buruan?

Arrese: Larraizkoak nahikoa buruhauste emango digu eta horretaz ez dugu pentsatu. Garbi dago pausoak ematen jarraitu beharko dugula. Egin beharko litzateke eta nik uste dut naturaltasunez hartu beharreko zerbait izan behar duela. Iritsiko da momentu bat eta gustatuko litzaidake herritarrak erabakitze eskubidea izango duen eguna ikustea.

Oiarbide: Idiazabalen ekimena sortu zenetik gauza asko egin ditugu. Esparrua zabaltzen eta handitzen joan da. Kontzeptua argitzen joan da. Plano instituzionalean ikusi da babesak lortu duela eta herritarrengan ere zabaltzen ari dela, bere mailan. Baina guri gustatuko litzaiguke Goierrri txispa bat izatea, Euskal Herrian ilusiozko sute bat sortzeko. Baina guk ezer ere ez daukagu inora esportatzeko moduan. Gu gizarteratzeko fasean hasi ginen baina egikaritzera ez gara iritsi. Seguraski behin zikloa bukatzen denean, aldarrikatetik ekintzara pasatzen garenean, orduan Goierrri, Euskal Herri mailako adibidea izango da. Gu

azken finean autodeterminazio kontzeptua gizarteratzen eta aldarrikatzen ari garen ekimena gara, baina hurrengo pausoa emateko, seguraski, eragile ezberdinekin eta eragile gehienekin hausnarketak egin beharko genituzke. Fase hori beharbada, aurtun ireki beharko da.

Posible da. Elkarrean artean lana egiteko esparruak sortu behar ditugu, bestela nola goaz! Gainera behar-beharrezkoa daukagu, ezin gara atzera gelditu. Europan, Eskozia eta Katalunia, aurrera egiten ari dira erabakitze eskubidearen aldarrikapenarekin.

Nazioen Munduak herri ekimenak alderdi eta iritzi ezberdinetako agintariak elkartzea lortu du. Hiru argazki historiko behintzat (Igartzan, Miramarren eta Itsasondon) atera dituzue.

Arrese: Itsasondon adibidez, kolore ezberdinetako alkateek bat egin zuten. Argazki garrantzitsua da baina orain lortu behar dugu, alkate horiek ordezkatzeko dituen herritar guztiek ekimenarekin bat egitea. Erakundeek beraien pausoa eman dute eta herritarrek zer gutxiago, hori babestu eta Goierrri mailan harro egoteko moduko zerbait antolatzea. Ordezkariekin jokatzeko dugu asko baina herritarrak mobilizatu nahi ditugu.

Oiarbide: 80. urteurrena nabarmendu nahi genuen. Mugarririk historikoa izan zen, Itsasondon gertatu zena. Orain goierritarroi dagokigu horri babesak ematea. Sekula egin ez den ariketa bat da, denon partehartzea sustatzen duena. Igartzako 37 lagunek eta Itsasondoko 18 lagunek ezin dute hau egin, goierritarrak, norbanakook bakarrik osatu dezakegu.

Argazki historiko horiei oinarria jarri behar zaie. Ordezkariek ados jarri badira, herritarrok ere ez daukagu zertan ados ez jarri. Hurrengo argazkia, ezezagunena, herritarrenena da.



Garai bateko lanabes
eta trasteen museotxo
Seguran

Rafael Berasategiren altxorra ikusgai

Berasategi familian beti egon da gauzak gordetzeko ohitura. Rafael ere berezia izan da horretan. Lanabesak eta lanbide ezberdinetako trasteak eta historia biltzen joan da urteetan zehar. Orain, nahi duenarentzat ikusgai ditu Erraztiolatzan, Segurako Kale Nagusiko 26. zenbakian duen 'museo' txikian. Urtero bi mila lagunetik gora pasatzen da bertatik.

Azoka txiki bat

Garai batean Seguran izaten ziren azoketan oinarrituta antolatuta du Berasategik erakustokia. Aurreko mendearen hasieran, hiru azoka oso garrantzitsu izaten ziren: Sanbizenetan, Santotomasetan eta Santiagotan. "Seguran jauntxo asko bizi zen eta beraiek behar zutena erosteko edo zenbait gauza saltzeko, jendea erakarri behar zuten inguruko herrietatik. Ordiziako peria baino garrantzitsuagoak zirela esaten da. Santiagotan guk ezagutu ditugu, Sanjoanek bezalako festak. Denborarekin galtzen joan dira" dio Berasategik. Hori jakinda zera pentsatu zuen Rafael: "Seguran azoka egiten zen eta zer salduko zuten? Hemen, erakustokian zeuden trasteak: etxeko sukaldeko tresneria, linoa ere bai (esaten da linoaren salmenta garrantzitsua zela, hemengo jauntxoentzako tela bereziak eginda ekartzen baitzituzten), arotzeriako lanabesak, baserriko lanabesak, ate zerrailak..." Horiek denak bilduta zituenez; garai hartan erabiltzen zen eta azokatan saltzen zen tresneria, jendearentzat ikusgai jartzea erabaki zuen. Hala ere, horiekin zerkusirik ez daukaten beste hainbat gauza ere badira Erraztiolatzan. Museo txikian barnertu gara.

Larunbatetan irekita

Martxotik abendura egoten da irekita Erraztiolatza. Larunbat goizetan, 10:00etatik 13:00etara. Aste Santuan, Iparr-Hegoan, Sanjoanetan eta Lore Azokan ere irekitzen du Berasategik.

Informazio gehiago webgunean: erraztiolatza.net



Erraztiolatza

Erraztiolatza izena berreskuratu eta omendu nahi izan du Rafael Berasategik bere erakustokiarekin. Segura herriaren aurreko izena da Erraztiolatza. "Gizarteratu egin nahi dut garai bateko herriaren izena. Ona izan da. Jende askok bazekien, Segura aurretik hemen bazegoela beste herri bat. Zaharrenek bazekiten Erraztiolatza izena zuela".

Rafael Berasategik duela 10 bat urte izan zuen Erraztiolatza izenaren berri. "Joseba Intxaustik Segurari buruz liburu bat idatzi zuen. Erraztiolatza izena orduan azaldu zen. Bi pasadizo agertu ziren: San Adrian de Erraztiolatzako pasadizo bat. Garai batean, Elizaren izena agertzeko Elizaren izena, santu bat eta izen bat agertu behar izaten ziren. Izen hori, herria omen zen. Beste pasadizo bat: Segura gaurko egunean ezagutzen dugun bezala, 30 bat urtera azaltzen da dokumentu bat, herritarrek elkartu zirela eta hermandade edo kofradia bat egiteko. Erraztiolatza izeneko kofradia egin zuten. Horrek esan nahi du oraindik mantentzen zutela herriaren nortasuna, nortasun hori mantendu nahi zutela adierazten du. Egia da gerra irabazten duenak idazten duela historia, bere aldera. Garai batean hau Nafarroa zen (Nafarroako sinbologia jarri du etxeko balkoian), gaur Gipuzkoa den bezala. Nafarroari lapurtutako lurak defenditzeko irekitako gune militar bat izan zen Segura. Gero jendea etorriko zen baina gune militarra izan zen Segura, Agurain, Ordizi, Tolosa eta Hernani izan ziren bezala. Segura 1256. urtean sortu zela esaten da, ezagutzen dugun herri hau bezala. Baina hemen jendea bizi zen. Aranzadik, duela 6-7 urte, Txuloneko indusketak egiten aritu ziren eta ehun urte lehenago aztarnak aurkitu zituzten. Aurretik ere jendea bizi zen. Segura izena dauka orain baina aurretik ere bizi zen jendea. Segura izenarekin aurreko guztia suntsituta gelditu zen, inongo arrastorik utzi gabe", argitu du segurarrak.

Ehungintza

Erakustokian sartu eta ezkerrean, ehundegia ikus daiteke, gizonezko bat ehuna egiten. "Galiziatik ekarria da ehundegi hau. Gure kalkuluen arabera, 200 urtetik gorako ehundegia da. Oraindik martxan dago. Erdi Aroko jaian martxan jartzen da. Berez, Holandan egindako modelo da. Kantauri guztian, Galiziatik honaino erabiltzen omen zen. Etxeetan erabiltzen zen ehundegia zen. Bertan egindako ehunak eta zakuak daude. Herriko jendeak egiten zuena zen: linoa prestatu, bolak egin makinan sartzeko eta ehundegietara eramaten zen ehuna egiteko. Gizonezkoak egiten zuen ehundegiko lana. Aurreko lan guztia, emakumezkoak. Eskulana bakarrik kobratzen zuten, materiala norberak eramaten zuen-eta.

Ehuleen ehun asko Seguran lortutakoak dira, lihoa egiteko trasteak ere bai, urte askotan gelditu egon direnak.

Lihoaren edo linuaren prozesua ikusteko aukera ere badago Erraztiolatza, argazki errealekin lagunduta.



Goierriko azken
1708ko irailaren 29an Zeg
Martinez de Arostegiri or
(reales de vellón) Zegama
hiltzeagatik ondoren jende

*Iten se
p. 127
Arostegiri
w. 127*

Zepoak

Zepo gehienak segurarrek ekarritakoak dira. "Ehizerako zepoak, eskupetariak diren tresna hauek denak". Hegaztien zepoak badaude baina gehienak, baina dira. Dortokak, basurdeak eta otsoak harrapatzeko zepoak ere baditu Berasategik.

Goierriko azken hartza

Hartzak harrapatzeko bi zepo daude erakusketan. Bat hemen bertakoa da. Zepoarekin batera, dokumentu berezi bat ere badu. Honela dio: 1708ko irailaren 29an Juan Martinez de Arostegiri ordaindu zizkion 15 erreale (reales de vellón) Zegama hiltzeagatik eta ondoren jendaurrean erakutsi zuen.




Zerrailak

Erakustokira bisitan datozenen arreta gehien erakartzen duten gunea da zerrailak eta girgiluak ikus daitezkeena. “Burdindegirik ez zegoen. Hemen dauden jauntxoek halako etxeak edukita, horrelako zerrailak egin beharra zegoen, atak ixteko. Segurara ola asko zeuden”.

Ate giltzak ikusgarriak dira. “Segurako ateetan egondakoak dira gehienak. Denek funtzionatzen dute”.

Girgiluak

Girgilu sorta ederra dauka Rafael Berasategik. “Udaletxe zaharraren azpian, kartzela zegoen eta hango girgiluak dira. Kaja batean zeuden. Nik jaso ez banitu, botata egongo ziren. Zerainean dagoen dokumentazioaren arabera, Toledon egindakoak ziren Zerainean zeuden girgiluak. Pentsatzen dut handik ekarriko zirela Segurara ere, Gaztelaren menpe zegoelako”.



Arotzak

Arozgintza ere lanbide garrantzitsua zen. “Ateak eta leihoak egiteko arotzak behar ziren. Sagardoa egiten zen ia etxe guztietan. Indusketak egin diren ia etxe guztietan dolareak atera dira. Gauza kurioa: Ardixarra etxearen aurrean dagoen etxe batean atera zen dolarea, harritzko dolarearen zutabeak atera dira. Ez dago inon ere horrelakorik”. Kupelak egiteko tresneria ere ikus daiteke Berasategiren museo partikularrean.

etarik ez zen eta. Perietan saltzen
t, basakatuarenak eta azariarenak
erasategik bere bilduman. .

akoa eta bestea Errumaniakoa.
irailaren 29an Zegamako Udalak
Zegamako mendietan hartza hil-



Sukaldeko tresnak

Neurri ezberdinetako eltzeak ikus daitezke. “Hemen egingo ziren. Ni gogoratzen naiz gure osabak nola esaten zuen, Araba kalean, zeramikak eta horrelakoak saltzen zirela mende hasieran. Udaletxean badago idatzi bat, sukaldeko tresnerien salmenta aipatzen duena”.




Zeramika

Seguran ez zen zeramikarik egiten, baina Zegaman bai eta handik ekarriko zituzten Segurako azokara. Francisco Arregiren pieza originalak ditu Berasategik, zigilu eta guzti. “Gregorio Aramendiren aitona izango zen Francisco Arregi”.



Lihoaren prozesua

Balentin Aldasoro ‘Balentin Txiki’ izan zen Segurako azken ehulea, Xoxone etxekoa. Segura bertako argazkiekin eta tresnekin, lihoaren prozesua ikus daite Erraztiolatzan.



Gariaren prozesua

Lihoaz gain, garai batean garia ereiten zen Madurako zelaian. “Terrenoa laiarekin prestatu (Segurako laiak dira denak), lurra buelta eman, arearekin pasatu, txitu, erein eta urte guztia bere zain egon. Galbaheak, pisatzeko sistemak, neurriak (lakaria, imia eta anega). Garia neurtzeko erabiltzen ziren neurri horiek eta gerora, babarrunak neurtzeko erabili izan dira”.




Iltzeak

Segurako Arrabiolan eginak dira Elizako teilatuan jasotako iltzeak. "XVII. mendeko idatzi batzuk badaude, Elizako teilatuko egurra Etxarri aldeko haritzarekin egindakoa dela eta erretabloko egurra Segurako intxaurrekin egindakoak direla diotenak. Iltzeak, Arrabiolan egindakoak direla jartzen du. Iltze hauek atera zirenean, jaso egin nituen. Aranzadik iltze hauek katalogatu gabe zeuzkan. Normalean zutabeak ziriek lotuta egoten ziren baina kasu honetan ez. Orain katalogatuta daude".

Fosilak

Fosilek Segurarekin loturarik ez badute ere, Berasategiren bizitzarekin badute lotura eta bere lekutxo eskaini die fosilei Erraztiolatan. "Hau ere beste altxor bat da. Asko bidaiatu izan dut eta leku ezberdinetako fosilak ekarri ditu; gehienak, Marokotik. Bertakoak ere badaude, Aralarren eta Pirinioetan lortuak. Pieza berezi bat badago: munduan lehenengo aldiz oxigenoa kontsumitzen hasi zen bakteria. Sahararik ekarritakoa da".



Segura Gure Erroetan Murgilduz Erdi Aroko II. kultur astea

Uztailak 12, asteartea:

'Segura gure erroetan murgilduz' DVD berriaren aurkezpena, Ardixarra Etxean. 19:00etan.

Uztailak 13, astezkera:

Zaharberritu berria den Karkaban bisita gidatua, 19:00etan, Aranzadi Zientzia Elkarteko Alfredo Morazaren eskutik.

Uztailak 14, osteguna:

'Nafarroa 1512. urtean' hitzaldia, Angel Rekalde, Nabarralde Elkartearen zuzendariaren eskutik, 19:00etan, Ardixarran.

Uztailak 15, ostirala:

Ardixarran, 19:00etan: Erdi Aroko emakumeen buruko zapiak nola jantzten zituzten, nolakoak ziren erakutsiko du Ane Albisuk.

Uztailak 16, larunbata:

Araoz Gazte abesbatzaren emanaldia (Kutxa Gizartekintzak sustatuta), 19:00etan, Ama Jasokundearen Parrokian.



Segura koadroan

Altxor txiki ugari ditu Berasategik eta horietako bat, Seguraren margoa da. "1808an, Espainiako Gerran, Napoleonen tropak pasatu zirenean, berarekin pasatutako apaiz batek egindako margoa izan behar du. Herriko jendeak ez zeukan koadro honen arrastorik". Berasategik berak ere ez, baina Zumalakarregi museoaren bitartez lortu du.

Mutiloa

Mutiloako jaiak

Ekainak 30, osteguna:

18:30ean: Mutiloako III. Pala Lehiaketako finaleko eta 3. eta 4. posturako pilota partidak eta sari banaketa.

19:30ean: XIV. Patata tortilla lehiaketa. Prestatutako tortillak gerturatu diren artean banatuko dira.

20:00etan: Toka lehiaketa herriarrentzat. Bi sari izango dira: gizonezko onenarentzat eta emakumezko onenarentzat. Iluntze aldeko giroa Iñaki Olarte eta Andoni Elortza trikitilariak alaituko dute.

Uztailak 1, ostirala:

20:00etan: XIX. Sagardo dastaketa egingo da. 26 sagardotegi desberdinetako sagardoa probatzeko aukera. Taloak eta pintxoak, txorizo nahiz gaztarekin.

Ondoren: nahi dutenentzat oilasko errea jateko aukera izango da.

23:30ean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Goizaldera: Txokolate jana.

Uztailak 2, larunbata:

Eguerdian: Bazkaldu aurreko poteoa.

14:00etan: Gazte bazkaria.

17:00etan: Umeentzako puzgarriak, jolasak eta merienda. Afariaren aurretik ardo banaketa izango da.

21:00etan: Herri afaria.

23:30ean: Txerri harrapaketa.

23:30ean: 'Egurra eta Kitto' eta 'Kupela' taldearekin dantza saioa goizaldera arte.

Goizaldera: Txokolate jana. Trikitilarien laguntzarekin.

Uztailak 3, igandea:

Goizean: Goiz eresia Segurako txistulariekin.

11:00etan: Bola lehiaketa.

11:30ean: Meza.

Ondoren: Gabiriko Goruntz taldearen dantza saioa. Bazkal aurrekoa Elustondo anai-arreba trikitilariak alaituko dute.

13:00etan: Toka lehiaketa.

18:30ean: Herri kirolak: Iñaki Azurmendi, Xabier Dorronsoro, Joxe Ugarteburu eta Xabier Zaldua aizkolariak.

Ondoren: Elustondo anai-arreba trikitilariak erromeria.

Zegama

Aizkorriko Lagunen Eguna

Uztailak 2, larunbata:

10:30ean: Antzinako Zegama ezagutuz ibilaldi gidatua. Isabel Elorzak egindako errege bideari buruzko ikerketaren emaitzak lekuan erakutsiz eta konpartituz. Zegamako herri gunean zehar izango da ibilaldia, Udaletxe aurrean hasita.

Uztailak 3, igandea:

06:00etan: Zegamatik Aizkorri mendi irteera, Zegamako plazatik abiatuta.

07:30ean: Aldaolatik Aizkorri mendi irteera.

10:00etan: Aizkorri urteroko argazkia ateratzea eta Zegamara itzulera.

12:00etan: Eusko Labeldun Hegaluzearen dastatzea, plazan.

18:00etan: Buruhandiak, plazan.

Ataun

Ataungo Organo Barrokoaren nazioarteko jaialdia

Uztailak 9, larunbata:

20:00etan: Tourseko Martin Deunaren Elizan, Raul de Toro (organoa), Adriana Alcaide (biolin barrokoa) eta Lixsanía Fernandez (zango biola).

Uztailak 16, larunbata:

20:00etan: Tourseko Martin Deunaren Elizan, Letizia Romitiren organo kontzertua.

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ERREPASOA, ERREKUPERAZIOAK
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
INFORMATIKA IKASTAROA
IKASKETA TEKNIKAK
IKASKETA ARAZOAK, IRAKURMENA,
ULERMENA, ARRETA...

INGELERA TRINKOA

Joan Iturralde, 5 Beasain
tel.: 943 160 120
www.ikaskide.net

GRÁFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

ARANDIA
GARAJEA
MULTIMARKA

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA

KOL. Zka. 649 RPS. 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Beasain

Abarlotzen kontertua

Abarlotz Olano Zaldibiako abeslariak 'Antilla' lehen diskoaren aurkezpena egingo du Igartza jauregian, 20:00etan, uztailaren 8an.

Afaun

Aiako santaixabel jaiak

Uztailak 1, ostirala:

16:30etan: Jaien hasiera. Kiki eta Koko pailazoak eta ume jolasak.

19:30etan: Aurtzaka dantza taldea.

21:00etan: Afaria.

Ondoren: Santi eta Katxo trikitilarietako erromeria.

Uztailak 2, larunbata:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Otoak dantza taldearen erakustaldia.

Ondoren: Luntxa Aitor Sarriegi eta Iban Urdangarin bertsolariek eta trikitilarietako alaiturik.

14:00etan: Herri bazkaria.

18:00etan: Toka txapelketa.

21:00etan: Gazte afaria.

23:30etan: Indarra eta Laket taldeekin kontzertua.

Uztailak 3, igandea:

12:30etan: Pelota partiduak. Alebinak: Zubizarreta Etxeberriaren aurka; jubenilak: Ibai Arratibel Zalduaren aurka; afizionatuak: Jon Arratibel Goikoetxearen aurka.

18:00etan: XXVI. Dantza txiki txapelketa.

Ondoren: Sagardo eta sardina dastatzeak.

Ordizia

Altamirako jaiak

Uztailak 8, ostirala:

17:00etan: Txupinazoa.

18:00etan: I. Futbolin txapelketa bikoteka.

20:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

21:00etan: Jubilatuentzat lunch-a.

23:00etan: Cafe Irlandes taldearekin dantzaldia.

Uztailak 9, larunbata:

10:00etan: Umeentzako krosa.

11:00etan: Umeen marrazki lehiaketa.

12:30etan: Patata tortila lehiaketa.

13:00etan: Trikipotea.

16:00etan: Umeentzako jolasak eta I. Mus txapelketa.

17:00etan: Iban magoa.

18:00etan: Altamira, Otegienea-Majori eta Eskarabilla arteko herri kirolak.

20:00etan: Buruhandiak eta erraldoiak.

21:00etan: Auzo afaria bertsolariekin.

23:00etan: Drindots taldearekin dantzaldia.

00:00etan: Mozorro lehiaketa.

03:00etan: DJ Xabi Garcia.

03:30etan: Kantzontzilo eta tanga arteko olinpiadak.

06:00etan: Matutina.

Uztailak 10, igandea:

10:00etan: Errondaila.

16:00etan: Toka txapelketa eta umeentzako ipuin kontalaria.

20:00etan: Egan taldearekin dantzaldia.

23:00etan: Sardinaren hileta.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kalea
Tel 943 711 804
Arrasate

O



Egurrezko
leihoak,
kontraleihoak,
ateak eta
eskailerak
neurritara.



**JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Lazkao

Udako ikastaroetako kultur ekintzak

Uztailak 5, asteartea:

22:00etan: 'Xentimorik gabe' antzerkia, Plazan.

Uztailak 12, asteartea:

22:00etan: Goierriko bertsolari gazteak: Iñaki Apalategi, Endika Igartzabal, Odei Lopez, Gorka Maiz, Aitor Sarriegi eta Gemma Urteaga. Gai jartzen: Irati Arrieta. Lazkaoko plazan.

Uztailak 14, osteguna:

22:00etan: Drindots musika-taldea, Lazkaoko plazan.

Goierri

Gazte festak Zaldibian

Ekainak 30, osteguna:

18:30ean: Jubilatuekin txokolate tertulia.

19:00etan: Txupinazoa eta Arkakuxo jaitsiera.

20:00etan: Patata-tortila eta entsalada lehiaketak.

Ondoren: Ibonen ikuskizuna.

Uztailak 1, ostirala:

10:30ean: Arkakan ibilaldi gidatua.

16:30ean: AHTri buruzko hitzaldia Gaztetxean.

18:30ean: Frontenis eta sasi pelotari txapelketa finalak.

20:00etan: V. sagardo dastaketa.

23:00etan: Harrika eta Ingo al deu? (erromeria).

Uztailak 2, larunbata:

10:30ean: Larraitzen mosaiko erraldoia.

14:30ean: Bazkaria, plazan.

Ondoren: 'Desapiyua' herriko gazteen artean.

Jarraian: Denok moztortzera!

18:30ean: Kale animazioa eta kalejira aldarrikatiboa.

21:00etan: Afarria, plazan.

23:00etan: Kontzertuak: Kituka Burundi (musika afrikarra) eta Itzel (erromeria).

06:00etan: Gosaria.

Beasain

Gazteentzako ikastaroak eta hitzaldiak

Beasaingo Udaleko Gazteria Sailak, uztailerako, 17 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaro sorta antolatu du, Bidertu Gizarte Kudeaketa S.L. enpresaren laguntzarekin. 10:00etatik 13:00etara izango dira hitzaldiak, Biderturen egoitzan (Kale Nagusia, 38). Izena emateko hiru bide daude: Biderturen bulegoan bertan, bidertu@hotmail.com helbide elektronikoan eta 943106572 telefono zenbakian.

'Motibazioa eta jarrera lanean'

Uztailaren 4an eta 5ean: Lanarekiko ikuspegi positiboa, gizarte harremanak, bizi kalitatea, status ekonomikoa eta soziala, nortasun eta lanbidearen arteko harremana landuko dira ikastaro honetan. Kuota: 10 euro.

'Gatazkak ebazten'

Uztailaren 12tik 14ra: Analisia gatazkaren oinarritik. Kuota: 10 euro.

'Gurasoein nola negoziatu'

Uztailaren 18tik 22ra: Komunikazioa familia harremanetarako tresna bezala. Kuota: 15 euro.

'Gazteak ekinean'

Uztailak 19: 'Gazteen mugikortasunerako Europako programei buruz informazio emateko hitzaldia izango da 11:00etan eta 19:30ean, Udaletxeko Batzar aretoan. Europatik ekimen honi buruz dauden laguntzak eta programaren informazioa azalduko da. Trukaketak, ekimenak, boluntariora... Programa eta hitzaldia 13-30 urteko nerabe eta gazteei zuzendua dago baina gurasoentzat ere interesgarria izan daitekeela esan dute Gaztedia Sailekoek.



www.eoi-ordizia-heo.net



2011-2012 IKASTURTERAKO MATRIKULA OFIZIALA


• HIZKUNTZA ETA MAILA ESKAINTZA:

Frantsesa eta Ingelesa: Oinarrizko maila (A1-A2)
Tarteko maila (B1.1) (B1.2)

• MATRIKULA EPEA: Ekainaren 30etik Uztailaren 14era

INFORMAZIOA:

943 88 86 75
Barrena Parkea, 1
20240 ORDIZIA




MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 37. zenbakia 2011ko uztaila



Patxi Zubizarreta
idazlea



Patxi Zubizarreta, ordiziar idazlea:

“Agirietan **lanbidea** eskatzen didatenean, beti pentsatzen dut ‘**Irakurle**’ jarri beharko nukeela”

‘Hiru egun balearen sabelean’ argitaratu berri duzu. Itsasoko kontuekin ausartu zara.

Lehorrekook, menditarrok, urruti samar izan dugu itsasoa. Gogoan dut, garai batean, Ataungo neskatila bat Ordiziako perira bidean, Oria ibaia ikusi eta itsasoa iruditzen zitzaioela... Euskal literaturan, bitxia bada ere, itsasoa oso gutxitan agertu izan da: Ignacio Aldecoa gasteiztarrek arrantzale istorioak bikain idatzi zituen, eta hara non orain ni ere balezaleei buruzko ipuin batekin ausartu naizen... Batzuetan, Gasteizen, ekaitz giroak kresal usaina ekartzen duela iruditzen zait.

Zergatik idazten dituzu haur eta gazteentzat liburuak?

Gure belaunaldiko askok, arrazoi ugari medio, euskara galdu edo ahaztu genuen. Euskara nireganatzeko ahaleginean, haur literaturak asko lagundu zidan: erraz ulertzen da, laburra da, marrazkiek atseginago egiten dute... Kantuek bezalaxe.

Nondik hartzen dituzu ideiak?

Edozein tokitatik. Ataungo neskatila haren pasadizotik, inguruko kontuetatik, egunkarietatik... Baina batzuetan, ideiarik gabe egoten naiz, naufragoa bezala.

Zure inguruko errealtatearekin ba al daukate zerikusirik zure istorioek eta pertsonaiek?



“Lehorrekook, menditarrok, urruti samar izan dugu itsasoa. Gogoan dut, garai batean, Ataungo neskatila bat Ordiziako perira bidean, Oria ibaia ikusi eta itsasoa iruditzen zitzaioela...”



Bai, noski. Nire liburuetan Larrañeta herria agertzen baldin bada, kontu egin hori Ordizia dela. 1948ko uda, Emakume sugearen misterioa, Barrikadak... gazte eta nagusientzako lan horiek nire jatorrian oinarritu ditut.

Zein da sortu duzun pertsonaiarik gustukoena?

Matias Ploff mutiko potoloa oso maite dut. Beasainen ikasi nuen, La Salle-n, eta horko gimnasia gorabeherak-eta ageri dira (aurten egon naiz, lehenengo aldiz, bertan, 34 urteren buruan... oso hunkigarria izan zen). Baina Usoa neskatila afrikarra ere maitagarria zait, edo azken liburuko Ismael, bukaeran izugarri harrituko gaituena... Denak dira, nola edo hala, nire seme-alabak.

Eta besteek sortu dutenetik?

Pinotxo, Sinbad, Altxor uharte-ko Jim Hawkins... Askok eta askok. Kontu egin idazlea batez ere irakurlea dela.

Irakurzalea ere ba zara beraz?

Oraintxe esan dizut. Agirietan lanbidea eskatzen didatenean, beti pentsatzen dut ‘Irakurle’ jarri beharko nukeela.

Irakurtzea ala idaztea gustatzen zaizu gehiago?

Sortzea txokolatzeko izozki edo tarta bat jatea bezalakoxea da. Baina irakurtzea lehen eta biga-

rrren platerak osatzen dute, hori da behar-beharrezkoena.

Liburuek zer ematen dute?

Jende askok uste du aspergarriak direla, jasanezinak. Eta batzuk-batzuk badira. Baina niri bizipoza ematen didate, bidaia-tzeko bidea, protagonista askoren larruan sartzeko aukera...

Irakurtzea gustatzen ez zaion bati, irakurzaletzeko zein liburu gomendatuko zenioke?

Daniel Pennac-en Otsoaren begia, gaztetxoentzat; Joxe Arratibel ataundar maitagarriaren Kontu zaharrak, baita txikiagoentzat ere: uste dut liburu hori gu denon etxeetan egon beharko litzatekeela; eta, atrebentziarekin, Joxek berak 'Txomin Ipurdi' ipuina kontatzen duen Urrezko giltza liburu-diskoa: hor ahalegin handia egin genuen gure tradizio aberatsa sartzeko eta gozagarri egiteko. Ahaztu gabe, Joxantonio Ormazabalaren liburuak!

Liburu bat:

Goerrin Piriniozale asko dagoez, Julio Llamazaresen La lluvia amarilla (Biescas inguruan, Ainielle herrixka abandonatuari buruzkoa). Baina urrutira joan gabe, Jon Arano, Xabier Mendiguren, Koldo Zubeldia edo Tere Irastortza goierritarren liburuak. Froga egin, aholkua eskatu, baietz zure gustuko liburua topatu!

Zaletasun bat:

Zinema, antzerkia, lagunarte ederreko ogitartekoa... (Alotzan hankautsik ibiltzea...).

Eskolan zein gai gustatzen zitzai-zun gehiena?

Gizarte, 'dudipe'.

Eta gutxienean?

Gimnasia, hori ere, 'dudipe'. Kontu egin mutiko potoloa nin-



tzela, eta Usurbe aldera bidaltzen gintuztela, korrika...

Txikitan gustukoaren zenuen jostailua?

Cinexin tramankulua, txuri-bel-tzeko pelikulak nola edo hala ikusteko.

Eta jolasa?

Pote-poteka, ezkutaketa... Gu

kalean bizi ginen.

Txikitan gehiena gustatzen zitzai-zun janaria?



Lau hitzetan esateko: Txo-ko-la-tea...

Eta gutxienean?

Hitz bakar batean esateko: barazkiak (gaur egun izugarri estima-tzen ditudanak).



Zenbatu ttanttoak



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Oilasko luma txatxua

Autorea: Marisa Nuñez
Ilustratzailea: Helle Thomassen
Itzultzailea: Koldo Izagirre
Argitaletxea: Kalandraka
Orrialde kopurua: 36

Bazan behin oilasko erdi lumatu bat urrez betetako zaku bat aurkitu zuena. Onena erregeri ematea izango zela bururatu zitzaion. Eta bidean jarri zen... Istorioa Portugalgo ahozko ipuin baten egokitzapena da, haur txikientzat ezagunak diren ipuin kateatuen familiakoa. Errepikapenak, onomatopeiak, errimak... erabiltzen dira ipuin honetan.

Joxe Arratibelen "Txomin ipurdi" ipuin gogoangarriaren aldaera oso polit bat. 4 urtetik aurrera.



Otso bihozbera

Autorea: Geoffroy de Pennart
Ilustratzailea: Geoffroy de Pennart
Itzultzailea: Mixel Jorajuria
Argitaletxea: Ikas
Orrialde kopurua: 38

Lukas otsoari gurasoen etxea uzteko unea iritsi zaio. Etxekoen aholkuen artean, aitaren-gandik jateko on diren gauzen zerrenda jasotzen du Lukasek. Zerrenda horretan azaltzen dira: Txanogorritxu, hiru txerrikumeak, zazpi antxumeak... Bidean aurrera doala pertsonaia horiekin guztiekin topo egingo du, baina ez ditu jango, errukituta... Hala ere goseak ez du barkatzen, zerbait jan beharko du, zer ordea? 6 urtetik aurrera.

7 aldeak

Goiko eta beheko irudiaren artean 7 desberdintasun daude. Aurkituko al dituzu?



Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

				6			3	
	3		2					7
8	6				7	5	4	2
6	9	8	5			7		4
	2	3	7	4	8		5	
7	5		6			3		8
	4	1	8	3		6		
	8	2			6	4		
3	7	6			4	2	8	

goierri^H artxoren
lagunak:

 **IRIZAR**





Ataundarrak 1951ko Sanferminetan

Argazkia 1951. urtean Ataundik Iruñeko San Ferminetara joan ziren lagun taldearena da.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Jose Apalategi, Jose Arza, Bittor Eskisabel, Vitoriano Eskisabel eta Jose Apalategi (Mitzene).

Beheko ilaran: Hilario Agirre, ezezaguna, Agustin Zurutuza eta Jose Rezola.



ibaiondo
altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxa: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

TERAPIA ALTERNATIBOEN ZENTROA

Oriamendi, 24 - Beasain

Osteopatia, Sakro-garezurreko Terapia, Masajea, Reflexologia - **Arantxa Urkia: 606 381 534**

Homeopatia, Masajea, Sakro-garezurreko Terapia, Kiropraxia - **Maite Larraza: 656 325 005**

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak

Beasain
senpere 7
943 887 972
www.
Barandiaranzeramikak
.com

dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

ZEGAMAN eta ORDIZIAN IZEN-EMATE KANPAINA

Orain Goierri
6.100 familia ari
dira parte hartzen

Zu ere animatu zaitez!!

HEMEN NAGO!!

Etkez-etxe banatuko dugu
bilketarako behar duzun guztia.

ZEGAMAN

**EMAN IZENA zure
atariko ZERRENDAN
uztailaren 6a arte**

Zorionak ORDIZIArroi

Dagoeneko 1.700 ari zarete organikoaren
bilketan parte hartzen

**ORAINDIK EZ DUZU IZENIK EMAN?
EGUN HAUETAN PLAZAN IZANGO GARA**

**uztailak 4 eta 5, 16:30-19:30
uztailak 6, 17:00-20:00
uztailak 7 eta 8, 10:00-13:00**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Argibide gehiago: www.sasieta.net

orain
ingelera
ere bai!!



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



eskaintza akademikoa

arautua **goi mailako zikloak** (euskaraz)

- Sareko informatika sistemen administrazioa
- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak (Automatizazio eta robotika industrialak)
- Metal eraikuntzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea

erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak

ez
arautua

- Langileen etengabeko formazioa
- Langileen formazio espezifikoak
- Langabetuen formazioa

Tel: 943 651 147 (Josune)
943 650 664

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

aurrematrikula

Ekainaren 1etik 10era

**matrikula
epea**

Uztailak 4tik 8ra

zure etorkizuna ziurtatzen dugu!!

- Lankidetzak hitzarmenak 150 enprekin
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromisoahartzen dugu

www.tolosaldea.com